

Maite-kanta

(Gurutzeko Juan deunaren *Cántico Espiritual* en azalpena)

Onera-bidean

Jaunaren naia ta gizonaren naia, biak aihar bat egitea, or santutasunaren mamin eta ardatza. Ezta besterik. Gauza erreza ta aldatz-gorabakoa? Bai ta ez. Borondate sendota indartsu baten jabe danarentzat, ezta ez, egia autortzeko, orren gauza zailla be; baiña ementxe datza gauza arrigarri ta ulert-gaitzen ezkutua. Gure gogoa, edo borondatea, geienik, aize-orratz antzera, aizeak nora bultz araxe begira dogu, aldakor baita, pika-buztan, ibildari. Ta lur-azalean gareala, aize-bolada geiegi daukagu zentzun bizigarri, ta ez yaku errez geure borondatea garbi euki ta garbitasuna bera dan Jaunarenagaz alkartzea.

Gure arimeak, izan be, Jainkoaz osorik alkartzera orduko, loi ta zakar ta koipezto askotaz garbitu bearra dau. Beeko zerak itxi ta goikoak ao-gozatu al izateko, gogoak

meetu ta ondu bearra dau, beeko gusto ta joera guztiak arbuiaitu ta muzin egiñik. Bai, garbiketa egin bear da nunbait, eta latza, oiñaze-tsua, larritasunez betea. Gure ezpiritua onek atera oi dau bere oizko sen eta sailletik, gauzak arrotzein eta giza-era guztiz bestelakorra aldatuaz. Eta arimeak, onetara eltzerakoan, penetan sartua izan uste dau, bere kautatik urtena izan be. Baita iñoiz lillura mende dabil lela be uste dau, edo-ta zorame-nez asetua. Arrigarri yakoz ikusi ta entzuten dituan gauzak, len usaiko eta esku arteko iduritzen yakozanak.

Luzaro samar toki batean edo gauza bati dautsagula gagozanean, porarren lez gagoz antxe. Au da: bakean; bakea geure izate osoa neke barik, zentzunak ezeren ikara barik eukitea ba'da beintzat. Egoe-ko naitai ortatik atera ezker, geun-kan bake gozua galdu dogula deritzagu. Oiantxe gertatu yako emen arimeari; lenengo, gozagarri yakon bakea galdu ta gau illunetik zear argitara igaroaz doa, zentzun guztien gaiñez dagoan barne-bake, mana ta eztitasun oso atsegingarri-
ra aldatuaz ziur asko. Lengoa, egia esan, etzan arimearentzat bene-benetako bakea, berak orrela uste izanagaitik. A itxi ondoren, barriz,

egon-ezin ikaragarrian ikusten dau bere burua, bake barik. Eta negarrari emoten dautso.

Eta au, gaxoari, bere barruan daukazan susmo, irudikizun, burruka latz, naste-borraste, mordoi-llo, kezka, durduri ta zarrapasta askoren iturri yako. Izan be, bere buruan dakusan gaitz eta mixerien bildur-ingiraen artean, galduta lez dagoala begitantzen yako, ta betiko amaituak dirala bere atsegin eta ondasun guztiak. Ortik dakaz bere barruan, bere izate erdian, oiñaze ta intziri oso sakonak, eta orrek sarka eragiñik, batzuetan olako orru ta uluak aoz be atera oi dauz; baita, ortarako adore ta indarrik danean, negarrari emon eta malko-tanta lodiak ixuri be. Dabid erregeak berari jazo, onela azaltzen dau: «Aulduta nago ta erabat akittua, orroaka neure biotzeko ikararren» (*Sal.*, 37, 9).

Sakona ta latza da burruka au. Baita arimeak itxoiten dauan bakea be sakona izango da naitaez. Samintasun au be barren-barrenekoa da, meia ta zorrotza. Ondoren daukaken maite-sua, ba, barren-barrenekoa, aratza ta lauskitua izango yako, dudarik bage. Ezta arritze-koa. Zenbat eta egindako gauzea

arduratsu ta beiñagoa izan, lana be egiñalez sakon, barruko ta garbiagoa izan bear. Etxe bati, gaillurra gorago ta oiñarriak sendo-sakona-goak jarten yakoz. Arimeak, naiz bere izate-mamiñean naiz bere almenetan egoera atsegintsurako artuko dituan konta-ezin alako doai ta onak, nai ta ez eskatzen dabe garbiketa ori. Min-bitsetan egiña, baiña ondoren aundikoa.

Argi-printzez

Arimeak, jakiña, samintasun ta orroe onein artean be, ez uste Kristo'ren argi gozo unerik izan ez dauanik. Nabari izan diru, ezin ukatu daitkegu, Maitearen argi-ziz-ta zorrotzak. Gorago aitaturiko illunaldi ortan be, ez, ezin da geldirik egon. Ikus: Abestietako Emaztea jagi ta bere biotzak maite ebanaren billa urteaz zan, urian zear garasika. Olan ebillela, urizaiñari itandu eutson: «Nire biotzak laztan dauan Maitea idoro al dozu?» (*Abest.*, 3, 3).

Era berean dabil arimea be. Ortik nunbait Juan deunak, bere abestiko bigarren ahapaldian, ain ederto osotua:

Artzaiñak, larre-bidez
ortik bait-zoaze muiñoan zear,
nik maiteen dodan A
baldin ba'dakuszue,
aul nagola esan, miñez ta iltzear.

Arimeak emen, bere burua mi-
ñez aulduta ikusirik, kanta-sail
onetan, Maiteaz bat-egin guraz,
irugarren, bitarteko ta gomontzai-
lleakaz baliatu gogo dau. Ta eska-
ri-arren berbera dagitse danai; be-
rak dauan atsekabe ta miñaren ba-
rria zabal dagiela or-zear; bai, ja-
kin dagiela guztiak zelako samiñak
daukan erpa artean.

Maitariarena da, izan be, mai-
teaz egi-egitan artu emonik izan
ezin dauan ezkerro, alik eta bide
onenez opa dauana eskuratzen saia-
tzea. Jo ara ta jo ona, eragozpen
danak azpiratu ta garai atera nai
izaten dau. Itz baten, al dan mo-
duan barruko isi ta leia bete, orta-
rako bear litzakezan bide ta gauza
guztitaz baliaturik. Bardintsu dagi
arimeak; bere nai, biozkada, eras-
pen eta intziriak esku arte erabilli
nai ditu emen; eurok bait-dira me-
zulari (mandatari) eder bikaiñak,
biotzak daukazan ixilpeko ta ezku-
tuak Maiteari erakusten dakienak.

Onela diño:

Artzaiñak, larre-bidez...

Artzaiñak dira, izatez be, gure
barrenetik, ur-sorburutik lez, jaio-
ten diran gurari, biozkada ta intzi-
riak; oneik janaritzen dabe, ba, ari-
mea atsegingarri yakoan jaki ixil-
tsuz. Ardiak larran dabe bedar bi-
guna; arimeak bere nai, lera ta
oiuetan, barren-jateko bikaiña. Ar-
tzain itzak bazkatzaille, angiozain,
larreduna esan nai dau. Jainkoa,
arein bitartez, artu-emonean sar-
tzen da arimeagaz; ta, izan be, gu-
rari, biozkada ta oiuetan bidez
izan ezik, eztira alkarregaz batu
ta artu-emonean jarten.

...larre-bidez

Larre-bideak aingeruen sail ta
jerarkiak dira. Ta gure eskari,
otoitz, asperen eta zotiñak Jainkoa-
ri eroaten dautseez. Auxe da euren
egitekoa. Baiña biozkada ta gurari
guztiak ez dira maitasun berotik
urtenak, eta beraz eztira, aingeruen
bitartez, Jainkoaganaño eltzen.
Maitasun garbi utsetik urtenak,
bai, sarobe ta larre-bidez doaza-
nak, orreik elduko dira Maitea da-
gon aulkiraiño.

Ortik bait-zoaze muiñoan zear

Jainkoari muiño deitzen yako
emen. Jainkoa, ain zuzen, mendi
gaiñetxoan, dana ikusi ta guren bi-
zi da. Ta, Beregan, muiño naiz
bizkartxo batetik lez, gauza guz-
tiak goi-begirale ikuskatzen ditu,
baita goiko ta beko aingeru-saillak
be.

Guk Jaungoikoari eskiñitako
otoitz eta eskariak aingeru orrein
bidez doaz Arengana. Ortaz diñot-
so aingeruak Tobias'i: «Negarrez
otoi egiten zenduanean eta, bazka-
ria itxirik, illai egunez zeurean gor-
de ta gabaz lur emoten zeuntse-
nean, nik zure eskaria Jaunari aur-
kezten neutson» (Tob., 12, 12).

Arimearen artzain aingeruak be
izan daitekez. Oneik, egiaz, gure
eskabide ta gomendioak Jainkoari
aurrera eroan ez-ezik, Jainkoarenak
gure arimetara ekarri be egin oi da-
bez. Taiu orretan, artzain onen ki-
deko, Jaunaren argitasun gozoz ta
izpar aintzagarriz janaritu, indartu
ta bizkortzen dabez gure arimak.
Aingeruok mesedez bete ez-ezik,
otso edo deabru gaiztoetatik zain-
du ta jagoten gaituez; diabruak di-
ra, ba, arimearen arerio ta zirika-
tzaille nagusiak.

Artzain oneik, naiz gure biotz-
ikarak izan naiz zeruko aingeruak,
arimeak bere ta Maitearen tartean
zati ta erdikide izan dakiozala gu-
ra dau. Bitartekoak, bai, bere ba-
rriak Ari eroan-azteko gai ta gau-
za diranak. Eta onan dei dagitse
guztiai:

Nik maiteen dodan A
baldin ba'dakuszue...

Maiteena —edo maitena— da
biotzak beste guztien gaiñez eta
beste guztiengaitik kutun ta laztan
dauana. Biziro maite, esan gura
dau; guztiz maite, txit maite, ezin
geiagoan maite; gauza ta izaki da-
nak baiño maiteago izan. Eta ari-
meak onela dagi egin be bere Mai-
teaz, onen zerbitzuan, koldartu lei-
kean ezer barik, edozer egin eta
eroateko inñundiko eragozpen ta
beatzarririk jarten ez yakonean.

Eta bertatik diño: baldin ba'da-
kuszue... Ta au esatea edo da:
bear bada, ausaz, nire zorionez,
zuok, artzaiñok, Aren aurrera el-
tzen ba'zarie, Arek zuok ikusi ta
zuoi entzuteko eran, edo zeuok A
ikusi ta Ari entzuteko gauza ba za-
rie, orduan esaiozue, arren, zelan
aurkitzen nazan, geixorik, miñetan,
eriotz-zori, il-bearrik.

Artzainak, larre-bidez
ortik bait-zoaze muiñoan zear,
nik maiteen dodan A
baldin ba'dakuszue,
aul nagola esan, miñez ta iltzear.

Arimeak emen, bere burua miñez aulduta ikusirik, kanta-sail onetan, Maiteaz bat-egin guraz, irugarren, bitarteko ta gomontzailleakaz baliatu gogo dau. Ta eskarri-arren berbera dagitse danai: berak dauan atsekabe ta miñaren barria zabal dagiela or-zear; bai, jakin dagiela guztiak zelako samiñak daukan erpa artean.

Maitariarena da, izan be, maiteaz egi-egitan artu emonik izan ezin dauan ezkerro, alik eta bide onenez opa dauana eskuratzen saiatzea. Jo ara ta jo ona, eragozpen danak azpiratu ta garai atera nai izaten dau. Itz baten, al dan moduan barruko isi ta leia bete, ortarako bear litzakezan bide ta gauza guztitaz baliaturik. Bardintsu dagi arimeak; bere nai, biozkada, eraspen eta intziriak esku arte erabilli nai ditu emen; eurok bait-dira mezulari (mandatari) eder bikaiñak, biotzak daukazan ixilpeko ta ezku-tuak Maiteari erakusten dakienak.

Onela diño:

Artzainak, larre-bidez...

Artzainak dira, izatez be, gure barrenetik, ur-sorburutik lez, jaioten diran gurari, biozkada ta intziriak; oneik janaritzen dabe, ba, arimeak atsegingarri yakozan jaki ixil-tsuz. Ardiak larran dabe bedar biguna; arimeak bere nai, lera ta oiuetan, barren-jateko bikaiña. Artzain itzak bazkatzaille, angiozain, larreduna esan nai dau. Jainkoa, arein bitartez, artu-emonean sartzen da arimeagaz; ta, izan be, gurari, biozkada ta oiuetan bidez izan ezik, eztira alkarregaz batu ta artu-emonean jarten.

...larre-bidez

Larre-bideak aingeruen sail ta jerarkiak dira. Ta gure eskari, otoitz, asperen eta zotiñak Jainkoari eroaten dautseez. Auxe da euren egitekoa. Baiña biozkada ta gurari guztiak ez dira maitasun berotik urtenak, eta beraz eztira, aingeruen bitartez, Jainkoaganaño eltzen. Maitasun garbi utsetik urtenak, bai, sarobe ta larre-bidez doazanak, orreik elduko dira Maitea dagon aulkiraiño.

Ortik bait-zoaze muiñoan zear

Jainkoari muiño deitzen yako emen. Jainkoa, ain zuzen, mendi gainetxoan, dana ikusi ta guren bizi da. Ta, Beregan, muiño naiz bizkartxo batetik lez, gauza guztiak goi-begirale ikuskatzen ditu, baita goiko ta beko aingeru-saillak be.

Guk Jaungoikoari eskiñitako otoitz eta eskariak aingeru orrein bidez doaz Arengana. Ortaz diñotso aingeruak Tobias'i: «Negarrez otoi egiten zenduanean eta, bazkaria itxirik, illai egunez zeurean gorde ta gabaz lur emoten zeuntsean, nik zure eskaria Jaunari aurkezten neutson» (*Tob.*, 12, 12).

Arimearen artzain aingeruak be izan daitekez. Oneik, egiaz, gure eskabide ta gomendioak Jainkoari aurrera eroan ez-ezik, Jainkoarenak gure arimetara ekarri be egin oi dabez. Taiu orretan, artzain onen kideko, Jaunaren argitasun gozoz ta izpar aintzagarriz janaritu, indartu ta bizkortzen dabez gure arimak. Aingeruok mesedez bete ez-ezik, otso edo deabru gaiztoetatik zaindu ta jagoten gaituez; diabruak dira, ba, arimearen arerio ta zirikatzaile nagusiak.

Artzain oneik, naiz gure biotzikarak izan naiz zeruko aingeruak, arimeak bere ta Maitearen tartean zati ta erdikide izan dakiozala gura dau. Bitartekoak, bai, bere barriak Ari eroan-azteko gai ta gauza diranak. Eta onan dei dagitsee guztiai:

Nik maiteen dodan A
baldin ba'dakuszue...

Maiteena —edo maitena— da biotzak beste guztien gainez eta beste guztiengaitik kutun ta lastan dauana. Biziro maite, esan gura dau; guztiz maite, txit maite, ezin geiagoan maite; gauza ta izaki danak baiño maiteago izan. Eta arimeak onela dagi egin be bere Maiteaz, onen zerbitzuan, koldartu leikean ezer barik, edozer egin eta eroateko inundiko eragozpen ta beatzarririk jarten ez yakonean.

Eta bertatik diño: *baldin ba'dakuszue...* Ta au esatea edo da: bear bada, ausaz, nire zorionez, zuok, artzainok, Aren aurrera eltzen ba'zarie, Arek zuok ikusi ta zuoi entzuteko eran, edo zeuok A ikusi ta Ari entzuteko gauza ba'zarie, orduan esaiozue, arren, zelan aurkitzen nazan, geixorik, miñetan, eriotz-zori, il-bearrik.

Oar emen? Jainkoak dana daki. Baiña... ta dana ulertzen. Egia da. Gogoaren pentsamentuak be ikusi ta sumatzen ditu. Moises'ek onan: «Bai, ba-dakit zein dan gaurtik, zin egin dautsedan lurrera baiño len erri orren jitea» (*Deut.*, 31, 21). Au da, Jainkoak ba-ekian ondo be, israeldarrak, Arek aukeratutako lurralde jorira, esnea ta ezitia erionera sartu ondoren, an oparo jan, ase ta gizendutakoan, zelan jainko arretzengana jo ta areik gurturik Jauna asarre-azo ta beronegaz egiñiko Ituna ausiko ebela. Guzti ori ez yakon Jaunari ezkutu ta ixil, gauza agiri ta jakiña baiño.

Alan be, gure bear-izanak ikusi ta gure eskariak entzuten oi dirula esaten dogu, gure naibageai osakaia jarri ta gure otoitzak beteten ditunean. Otoitz egitetik egirera alde aundia dago, dudarik bage. ta ezta edozein bear-izan ta eskabide osoz betea, au da, ondo egiña ta Jainkoak aintzat artua. Ortarako bear-izan eta eskabide oneik, garaiz ta neurriz —noiz eta zenbat kontuan eukirik—, Aren aurrera eldu bear dabe. Ta orduan esan daroagu Jainkoak gu ikusi ta gure eskariak entzuten dabezala.

Urteera liburuan au diño Jaunak: «Neure erriak Egipto'n da-

roan lor-lotsa ikusi dot; aren dea-darra be ito bearrez daukoenai bu-ruz, ta aren neke-miña be ba-da-zaut. Origaitik jatsi naz egiptotarren eskutik a jareiteko, ta lur aretatik lur on ta zabalera aterateko, esne ta ezitia dariozan lurrera ekar-teko» (*Urt.*, 3, 7-8). Ta israeldar erriak lareun urte eroiazan Egipto'n, morroi ta buztarri sendo, menderatua. Baiña orduantxe, betezan osorik, Jainkoak ikusi ta entzuteko eran, arein bear-izan eta eskarien ontzia. Lenago ez, naiz-ta euren neke ta garrasiak latzak izan.

Bardin agertzen yaku, gai one-tan, Gabriel goi-aingerua be, Zakariari esan eutsonean: «Ez beldorru, Zakarias, zure otoitza entzundaz» (*Luk.*, 1, 13). Zer otoitz zan Zakarias'ek egiña ta Jainkoak entzundaz? Zakarias'ek seme bat es-lanzen eutsen, urteak zirala, ta Jaunak ez eutsen emoten. Orain, zarra zan bera, ta bere emazte Elisaber be urteetan aurreratua. Jainkoak beti entzuten eban Zakarias'ek egunero, aspertu barik, egin oi eutsen eskaria; baiña oraintxe zan garaia ta mugona zar arein umeak, bere jaiotzan eta gero —Kristo'ren aurrelari izango zan—, jenterik as-ko poztu ta bide oneratzekoa. Ta Elisabet'ek ume bat ekarri eban,

Jaunak emona, ta Jon izena ipiñi eutsoena.

Ta ulertu bear da. Jainkoagana eske doan edozein arimak, eskatuala artu ezta be, bear-izana erakutsi, premiña adierazo ta irri-arrabatean eskatua lortu ez arren, Jainkoak eztau, ez, egiten dautson eskaria mugonez ontzat artu barik itxiko. Jainkoa, izan be, Dabid erregeak diñoskunez, gizonarentzat gordeleku, ta larri-aldirako abaro gozo da (*Salm.*, 9, 10). Ta arimeak, porrot egin eta eskatzeari izten ez ba'dautsa, goiz edo berandu, lortuko dau eskuratu guraz darabillena. Ta auxe da «baldin», bear bada, itz onegaz emen aitzen emon nai dauana. Ona benetako zentzuna: bear bada, nire eskariak beteteko aldia eldu ba'yako...

Egi-egiaz maite

Noiz elduko ete aldi, naiz epe, izentatu ori? Ezta eskari askoz beteten dana, dirudienez, fedez ta maitasunez jadesten dana baiño. Len esanik itxi dogu, arimeak, Jaunagaitik edozer egin ta sufriduteko gertu dagoanean, maitasun gartsua dauala bere barruan; ezpai barik gauza guztien gainez Jainkoa maite

dau adimen osoz, indar guztiz ta gogo-gogoz. Ortara ezkerroan, egoki baizen errez esan daike urrengoa bertso au:

Aul nagola esan, miñez ta iltzear.

Arimeak ontan iru bear-izan, iru premiña azaldu nai ditu. Au da: aultasuna, miña ta eriotza. Jainkoa maitasun oso samurrez egiazki maitete dauan arimeak, Jainko ori urrun eukitean, biotzez maite dauan zer ori barik aurkitzean, iru eratara ja-san eta sufriduten dau sarri. Arimeak, dakigunez, iru almen ditu: adimena, naimena ta oroimena. Ta gorriak ikusi oi dabez irurok maitetegandik aurrera aurkitzean.

Aldizkari gogorak, egi-egiaz-zaletasunak, askak, gehiok, ez baidira Jaunari ikusten eta Jainkoa di adimenaren asarua. Dabid'ek onela jartzen Jaunaren agorari: «Neu naz zure osasuna» (*Salm.*, 34, 3). Naimenari so egiñik, miñez, atsekabetan dagoala aurtortzen dau; naimen edo borondatearen atsegiña, Jainkoa da; Dabid'ek onela: «Zure atsegin-ibaian edanerazten dituzu» (*Salm.*, 36, 9). Gomutamen edo oroimenari bu-ruz, iltzear, ilteko zorion dagoala diño. Izan be, adimen-ondasunez,

au da, Jainkoa ikusteaz, eta naimen-atsegiñez, au da, Bera eukiteaz, gabetua dagoala gogoratuaz, eta lurbira ontako arrisku ta galzorietan, daitekena dala Bera barik betiko, geratzea be; au dala-ta, egoera larri au gogoratuaz, eriotz antzeko sentimentuz gorriak ikusten ditu. Ezta arritzekoa; esan dogunez, bada, Jauna da arimearen bizia, ta au barik bere burua ikustea estura ta larritasun ikaragarriaren iturri yako.

Gogoak, azaltzen gagozan aha-paldi ontako azken bertsoan ez dagi besterik bere bear-izan eta samintasuna Maiteari aurrean jarri baiño. Zuurki maite dauana, izan be, ezta saiatu oi eztaukana edo nai dauana eskatzen, bere premiña erakusten baiño, Maiteak gura dauana egin dagian. Galilea'ko Kana'ko ezteguetan Andra Maria'k bere Seme maitegaz edu onetan egin ebala, esan bear dogu; ardao barik gelditu ziranean, ez eutson artez ta zuzenean ardaorik eskatu, zearka lez onela esan baiño: «Ardaorik ez dabe» (Jon., 2, 3). Eta Lazaro'ren arrebak, nebea il yake-

nean, ez eutsoen Jesus'i iñor bialdu euren nebea osatu egiala esanaz, *maite ebana geixorik egoala* iragarriaz baiño.

Ta au iru errazobidez: Lenengo, Jaunak guk baiño obeto dakialako guri zer yakun egoki; bigarrena, Maitea laztan dauanaren premiña ta eroapena ikusiaz, geigo errukitu oi dalako; irugarrena, arimeari bere eritxiz palta yakona eskatzea baiño, ez daukanaren premiña erakustea, seguruago yakolako.

Orixe berori dagi orain arimeak. Bere iru premiñak, iru bear-izanak adierazo ta begi aurrean jarten ditu. Artzain ta abarri diñotse: Ona, esan, otoi, nire Maiteari *aul* nagoala, ta Bera bakarrik baita nire osasun, emon dagistala palta yatan osasuna; eta *miñez* nagoala, ta Bera bakarrik dan ezkeron nire atsegin, emon dagistala palta yatan atsegiña; eta *iltzeaz*, il ez bai il, nagoala, ta nire bizia Bera bakarrik dan ezkeron, emon dagistala bear dodan bizia.

Aita Onaindia

Il-ezinez

Bizi naz, ez baiña enegan,
ta ain ditxarot bizitz goitia
ez ilteak daust
kentzen bizia.

Joana bizi naz neugandik,
maite-sutan il-bearrez;
Jainkoaren baitan bizi naz,
beretzat nindun jo maitez:
biotza neutsonean emon,
an jarri eustan idatzia:

ez ilteak daust
kentzen bizia.

Ail, au biziaren luzea!
Erbeste onen minkorra!
espetxe ta kate oneitan
esturik bizi bearra!
Noiz urten-zain nagola soilki
damost oiñaze gorria!

Ez ilteak daust
kentzen bizia.

Ail, au biziaren garratza,
Jainkozko ezti bagea!
Maitasuna baita txit samur,
itxaro ez, baiña, luzea:
ken eidazu, Jainko pixu au,
galtzairu baizen andia:

ez ilteak daust
kentzen bizia.

Jaungoikozko espetxe onek
—nire maitezko egoitza—
Jauna dau egin nire jopu
ta azkerik ene biotza;
ta ain yat griñagarri Jainkoa
ene atxilo ikustia,

ez ilteak daust
kentzen bizia.

Il-bearraren uste gozoz
bizi naz bakar-bakarrik,
il ostean, bada, bizia
itxerok dakarst ziurrik;
bizia damozun eriotz,
ez luza, bait-nozu zeuria:

ez ilteak daust
kentzen bizia.

Ona, mardul da maite-sua...
Bizitz, ez zakidaz ziztrin;
ez daukazu beste biderik,
gaintzeko, galdua egin.
Betor bein eriotz biguna,
betorkit ilte aurkia:

ez ilteak daust
kentzen bizia.